

## Elkarri eman

HAMAIKA ERATAKOAK dira loreak. Landarearen bizitzaren arrazoia laburbiltzen dute, eta bide eman. Landareak ugalketa du helburua eta horixe da lorearen izatearen arrazoia. Lorean gertatzen den bi sexuen arteko nahasketak fruitua ekarriko du, hazien edukiontzia, alegia.

Nahasketa hori burutzeko iker-tu, garatu eta diseinatu du espezie bakoitzak bere lorea. Milaka urteko lanaren emaitza bada ere, etengabe berritzen ari dira. I+G+B. Etorkizunean ere bere espezieko ondorengoak izango direla bermatzeko atergabeko egokitzea.

Landareak hartutako lan hori sinestezinezko emaitzak ematen ari da. Ikusgarrietako bat lore-elkartuak edo konposatuak dituztenen familiakoa da. Ezagunenak bitxilorea (*Bellis perennis*) eta ekilorea (*Helianthus annuus*) izango dira. Margarita baten tankera duten loreak dira. Lore hauek benetan lore multzoak dira, infloreszentziak, botanikarien hizkeran. Konposatuaren lore multzoak borobilak izan ohi dira, eta bi eratako loreak dituzte: kanpoko aldean kolore deigarria duten lore luzexkak –maite nau, ez nau maite, maite nau, ez...–, eta barruko aldean betebete osatzen duten lore tikiak.

Maite bagaitu edo ez, jar gaitezuen erlearen tokian: hegan dabil, hara-hona, eta lore borobil ikus-



JAKOBA ERREKONDO

garriak urrutitik antzemango ditu. Kanpoko lore horiek biltzen duten borobila, nora jo behar duenaren helmuga, arkulariari diana bezain argi azalduko zaio. Borobila ikusgarria egiten duten kanpoko lore horiek antzuak dira. Bere egin beharra beste loreetara erleak ekartzeko multzoa erakargarri egitea da: luzatu eta kolorez janzten dira. Antzutzeko prest daude, aldameneko loreak ernaldu eta haziak eman ditzaten.

Konposatuez gain beste zenbait landarek ere erabiltzen dute estrategia hori: hortentsiak (*Hydrangea sp.*), *Viburnum opulus* gaukarraren senideek, eta abar. Lore batzuk erakargarri edo apeu soilak dira. Bereari uko, besteei emana. Elkar emana. Elkar hartzeko.

Landareak hartutako lan horrek sinestezinezko emaitzak ematen ari da, eta emango dituenak... ■

## 6

**Landutako landareak** kultura dira. Tokian tokikoak, milaka urtean landuz egokitu direnak. Bertarako aproposak diren aldaerak. Ez dago antzeko liburutegirik, datutegirik, ondare multzorik.

Lehenengo mendean ia egunero landare aldaera edo barietate bat galdu dela uste da, 30.000 inguru. Gaur egun, noski, asko aurreratu dugu, alde ederreko kultuak gara, ikasiak, jasoak... Gaur egun sei orduo galtzen da aldaera bat. Atzo lau. Gaur lau. Bihar lau. ■



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:
- Baratzeko landare ekologikoak
- Ezagutu eta aukera ezazu Urbina Garden-en.
- Legutio ☎ 945 40 34 23



☎ 609 42 45 47 • lorelan@euskalnet.net